

- **Kostuen egitura:**

- **Kostuak:**

Proiektua gauzatzeko argi dago mota askotako kostuak izango ditugula. Alde babetik, kostu zuzeni dagokienez. Beste aldetik, zeharkako kostuei dagokienez, Ondoren, finakoak...

- Kostu aldakorak: Kamioien gasolina, langileen soldatak, lehengaiak...
- Kostu finakoak: Lantegiko alokairua, ekoizpena...

Aipatu beharra dago gure enpresak mozkinak dituenean, kapital soziala saritu egingo dela. Aurreikusten saiatzen ari gara emaitzak onuragarriak izango direla etorkizunari begira. "Kapital sozialak ez du kostu esplizitu bat, baina bai kostu inplizitu bat, aukera-kostua, kapital sozialeko ekarpenak beste nonbait inbertitua izango balira eksuratuko luketen errentagarritasuna."

- **Hasierako inbertsioaren kostuak:**

Multishower-ean asko inbertitzen saiatuko gara. Horretarako, iragarkiak eta promozioak egingo ditugu baina hori egiteko lehenik, diru asko inbertitu egingo dugu. Zenbait aste eramango digu inbertitutako dirua lortzea baina dena aurreikusita dugun bezala joaten bada, lehenengo hilabetean mozkinak handiak izango dira. Horrez gain, langileen prestakuntzan eta kamioien garraioan ere hasierako inbertsio kostuak izango dira. Baita kamioien materiala ere (gurpilak, gasolina...)

- **Balorazio globala:**

Multishower-a iraultza bat izango da ezgaitu eta agureen munduan. Oso bideragarria izango da merkatuan, bezeroek beso-zabalik hartuko baitute ideia berritzaile hau. Aiton-amonak dituzten familiek beraien zaharrak zaintzeko gure dutxa aukeratuko dute, ez baitago proiektu hau baino segurtasun eta aldi berean laguntza handia eskainiko duen beste dutxarik. Ideia balorezkoa izango da bai enpresaren hedakuntzarako (eta gure helburua betetzeko: beharra dutenei dutxan izan ditzazketen zailtasunekin laguntzea), bai bezeroentzat (familia asko lagunduko baititugu, ezgaituak eta agureak dituzten senideak batez ere, arazoa duten pertsona horiei autonomia gehiago emango baitiegu dutxatzeko) eta gizartearentzat ere (aurrera pauso bat izango baita).